



Kimar

Consultores Ambientales, S.L.



Juan de Ajuriaguerra 17, 1º D 48009 BILBAO • Tel. 944 230 677 • Fax 944 239 025
e-mail: consultora@kimar.es • www.kimar.es

INGURUMEN DOKUMENTU ESTRATEGIKOA

MUNGIKO ARAU SUBSIDIARIOAK ALDATZEA BENTADES IKASTETXEA ZABALTZEKO

SUSTATZAILEA


MUNGIKO UDALA

ERREF.

II-MM0703

DATA

Bilbo, 2017ko martxoa



MUNGIA
UDALA



AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	1
2.	PLANGINTZAREN HELBURUAK	3
3.	PROPOSATUTAKO PLANAREN ETA HAUTABIDEEN NORAINOKOA ETA EDUKIA.....	4
4.	PLANAK IZAN DEZAKEEN GARAPENA	7
5.	NAHASITAKO LURRALDE EREMUAN PLANA EDO PROGRAMA GARATU BAINO LEHEN INGURUMEN EGOERA KARAKTERIZATZEA .	8
6.	AURREZ IKUS DAITEZKEEN INGURUMEN ONDORIOAK	13
7.	ELKARTZEN DIREN SEKTORE ETA LURRALDE PLANEN GAINEAN AURREZ IKUSTEN DIREN ONDORIOAK.....	14
8.	INGURUMEN EBALUAZIO ESTRATEGIKO SINPLIFIKATUAREN PROZEDURA APLIKATZEKO ARRAZOIAK	15
9.	AURREZ IKUSITAKO HAUTABIDEAK AUKERATZEKO ARRAZOIEN LABURPENA	17
10.	PLANA EDO PROGRAMA APLIKATZEAN INGURUMENAREKIKO EDOZEIN ONDORIO NEGATIBO PREBENITU, MURRIZTU ETA, AHAL DEN NEURRIAN, ZUZENTZEKO AURREZ IKUSITAKO NEURRIAK, ALDAKETA KLIMATIKOA ERE KONTUAN HARTUTA.....	18
11.	PLANA INGURUMENAREN IKUSPEGITIK JARRAITZEKO AURREZ IKUSITAKO NEURRIAK DESKRIBATZEA	22
12.	DOKUMENTAZIO GRAFIKOA	24



1. SARRERA

Ingurumen ebaluazio estrategikoaren arloan araudia 3/1998 Legean, otsailaren 27koan, *Euskal Autonomia Erkidegoan Ingurumena Babesteko Orokorrean* (ingurumen inaktuaren ebaluazio bateratua), 21/2013 Legean, abenduaren 9koan, *ingurumen ebaluazioari buruzkoan*, eta 211/2012 Dekretuan, urriaren 16koan, *plan eta programen ebaluazio estrategikoari buruzko prozedura arautzen duenean*, dago.

Ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura 21/2013 Legeak 17. artikulutik 32. artikulura bitartean arautzen du.

Aipatu legearen 29. artikulua *ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatua* hastea eskatzearen ingurukoa da eta hala dio:

1. Plan edo programa egin edo onartzeko benetako prozeduraren barruan sustatzaileak organo substantiboaren aurrean, sektoreko legeriak eskatutako dokumentazioarekin batera, ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatua hasteko eskaera aurkeztuko du. Horri, planaren edo programaren zirriborroa eta **ingurumen dokumentu estrategikoa** erantsiko zaizkio. Azkenekoak, gutxienez, ondorengo informazioa izango du:

a) Plangintzaren helburuak.

b) Proposatutako planaren eta arrazoizko hautabideen irismena eta edukia, teknikoki eta ingurumenaren ikuspegitik bideragarriak badira.

c) Planak edo programak aurrez ikus dezakeen garapena.

d) Nahasitako lurralde eremuan plana edo programa garatu baino lehen ingurumenaren egoerari buruzko karakterizazioa.

e) Aurrez ikus daitezkeen ingurumen ondorioak eta, bidezkoa bada, horiek kuantifikazioa.

f) Elkartzen diren sektore eta lurralde planen gainean aurrez ikus daitezkeen ondorioak.

g) Ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura aplikatzeko arrazoiak

h) Landutako hautabideak aukeratzeko arrazoiak laburpena.

i) Plana edo programa aplikatzearen ondorioz, ingurumenean edozein ondorio negatibo aipagarri prebenitu, murriztu eta, ahal den neurrian, zuzentzeko aurrez ikusiak dauden neurriak, aldaketa klimatikoa kontuan hartuta.



j) Plana ingurumenaren ikuspegitik jarraitzeko neurriak deskribatzea.

Ingurumen organoak nahasitako herri administrazioei eta pertsona interesdunei kontsultatuko die eta, xede horrez, ingurumen dokumentu estrategikoa eta plan edo programaren zirriborroa eskura jarriko die.

Nahasitako herri administrazioek eta kontsultatutako pertsona interesdunek txostenaren eskaera jasotzen dutenetik gehienez berrogeita bost egun baliodunen buruan iritzia azaldu beharko dute. Epe hori igarotakoan iritzirik ez badute eman, prozedurak aurrera egingo du, ingurumen organoak ingurumen txosten estrategikoa egiteko iritzi nahikoak baditu. Halakoetan, gero jasotzen diren iritzia ez dira kontuan hartuko.

*Ingurumen organoak **ingurumen txosten estrategikoa** lau hilabeteren buruan egingo du, hasteko eskaera eta gainerako dokumentuak jasotzen diren unetik.*

Mungiako Arau Subsidiarioen aldaketa Bentades ikastetxearen eremuan egingo da, hirigintza eraikigarritasuna pixka bat gehitzeko.

Dokumentu hau *ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatua* hastea eskatzeko dokumentazioaren barruan dago. Ildo horri eutsiz, **BENTADES IKASTETXEA ZABALTZEKO MUNGIKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETARI BURUZKO INGURUMEN DOKUMENTU ESTRATEGIKOA** da. Organo eskudunak dagokion *ingurumen txosten estrategikoa* burutzea du xede.

Ondoren azaltzen den lana **KIMAR, Consultores Ambientales S.L.** enpresak garatu du eta edukiaren arduraduna Mar Basagoiti Royo (biologoa, 83. elkargo zenbakiarekin) da. Nolanahi ere, ebaluatzeko erreferentziatzat honako dokumentua hartu da: **BENTADES IKASTETXEA ZABALTZEKO MUNGIKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA. ARdV, urbanismo y arquitectura SLP** enpresak gauzatu du Arantza Ruiz de Velasco Artaza arkitektoaren zuzendaritzapean. Berak Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoan 2.183. elkargodun zenbakia du. Bestalde, lege aholkulariaren lanetan Joseba de Beristain abokatua aritu da.



2. PLANGINTZAREN HELBURUAK


Arestian aipatu moduan, Bentades ikastetxearen eremuan Mungiako Arau Subsidiarioen aldaketaren xedea jada gauzatutakoarekiko hirigintza eraikigarritasuna pixka bat gehitzea da, ikastetxeak espazioan erantzun egokia eman diezaien denborarekin sortu diren beharrei, bere egunean egindako aurreikuspenak gainditu baitira.



3. PROPOSATUTAKO PLANAREN ETA HAUTABIDEEN NORAINOKOA ETA EDUKIA

Bentades ikastetxeko lurzatia Mungiako hiriguneko etxebizitzaren hiri bilbean sartuta dago, udaletxetik hurbil, eta 4.588,91 m²-ko azalera du.

Barruan, eraikuntza Z itxurarekin antolatzen da eta sestraren gainean hiru eraikin daude: jatorrizko eraikina, eraikin nagusia eta kirol pista. Eraikuntzarik gabeko lurzatia joko patioetara bideratzen da.



3.1. irudia: Bentates ikastetxearen kokapena

Arestian aipatu den bezala, Bentades ikastetxea 2007. urtean egin zen. Une horretan eraikin nagusia zabaltzeko obrei ekitea erabaki zen, zuzendaritza batzarrak bere bizi erabilgarri guztian ikastetxeak jaso behar zituen ikasleak aurrez ikusita, beharren programan oinarrituta. Programazio horretan funtsatuta, urte haietan onartutako antolamendu xehatua aldatu zen eta hirigintzaren ikuspegitik abiapuntua, noski, Arau Subsidiarioek ematen zuten eraikigarritasuna zen. Izan ere, beharren programak ez zuen gainditu behar horiek baimendutako eraikigarritasuna.




2007. urteko aurreikuspenak, ordea, hezkuntzaren ikuspegitik hamarkadaren hasieran, Bentades fundazioaren irakaskuntza proiektua ahalbidetzeko Arau Subsidiarioen aldaketa izapidetu zenean, egindako aurreikuspenak baino nahi askoz handiagoa zuen.

Azkeneko aurreikuspena Eusko Jaurlaritzaren gomendioz burutu zen, mailako ikasgela bakarraren ordeaz bi ikasgela kontuan hartuta, legeriak uzten duen gehieneko ikasle kopuruarekin, haur hezkuntzatik (0 urte) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitu arte. Instalazio osagarriari (besteak beste, jangela) dagokienez, aurreikuspenak honako abiapuntua izan zuen: zentralitate egoerari esker, ikasleek etxean bazkal zezaketen eta hori sustatuko zen; arratsalde berriz itzuliko ziren ikastetxera eskola lanaldia osatzera.

Errealitateak, berriz, aurreikuspenak gainditu ditu eta arrakasta izan da, batetik, eskolan bertan kalitatezko ikastetxe bezala eta, bestetik, jangelako zerbitzua. Bi horiek eraikitako espazioaren aurreikuspenak berriz aztertzeraz behartu dute, horren gabezia larria dela ikusirik.

Hasi da zabaltzearen aurreikuspena eta, horretarako, eraikin nagusiko arkupe irekiak zati batean itxi nahi dira, horietan solairuartera eraikitzeko. Proiektuaren arduradunek ohartarazitakoaren arabera, lurzatiaren eraikigarritasuna agortuta dago eta obra lizentzia eskatu eta gauzatzeko plangintza aldatzea bidezkoa da.

Aurrekoaren harira, Arau Subsidiarioen aldaketa honen helburu bakarra eraikin nagusian arkupeen azalera ixtea da. Itxitura horri esker, azalera beheko solairuan eta solairuarteran aprobetxatuko litzateke. Horretarako, eraikigarritasuna gutxi gorabehera 330 m²-n (egun eraikia dagoen azaleraren % 5,5 inguruko hazkuntza) gehitzea baimendu behar da.



3.II. irudia: zabaltze zona (horiz ilundua)



Aurreko irudian ikus daitekeen moduan, zabal daitekeen zonak eraikinaren gehieneko lerrokadurak errespetatzen ditu eta eraikitako bolumenean integratzen da, hura gehitu gabe. Ondorioz, eraikuntzaren okupazioa plantan ere ez da gehitzen. Hala, indarreko plangintzaren antolamendu xehatua ez da aldatu behar.

Arau Subsidiarioen aldaketari buruzko egiturazko parametroei dagokienez, parametro bat besterik ez da aldatzen. Lurzatiaren eraikigarritasuna da eta $1,3 \text{ m}^2/\text{m}^2$ -tik $1,38 \text{ m}^2/\text{m}^2$ -ra pasako da.

Lurzatiak $4.588,91 \text{ m}^2$ -ko azalera duenez, eraikigarritasun koefizienteak $0,8 \text{ m}^2/\text{m}^2$ -ko hazkuntza du, beraz, egiaz $367,11 \text{ m}^2$ -ko hazkuntza da. Hala, lurzatiaren guztizko eraikigarritasuna $6.332,70 \text{ m}^2$ -koa izango da.

Aldaketaren proposamenean antolamendu xehatuaren parametroak ez dira aldatzen, antolamendu xehatuaren hirigintza-estandarrek betetzeari buruzko justifikazioaren atala baztertu gabe.

Lurzatian gehienez $367,11 \text{ m}^2$ zabaltzea baimenduko litzatekeela eta, beraz, baimendutako eraikigarritasunaren % 5,8 dela kontuan hartuta, lurzatiaren azaleraren gainean proportzioz kalkulatu ostean, berdeguneetarako honako lurzorua laga beharko litzateke: % 5,8 x % 6, hau da, azaleraren % 0,348. $4.588,91 \text{ m}^2$ -ko lurzatiaren gainean ehuneko hori 16 m^2 dira.

Horrez gain, eraikuntza proiektuak ikastolaren instalazioen barruan edo bertatik hurbil 4 zuhaitz landatzea aurrez ikusiko du.

Bentades ikastetxeak bere lurzatian eskola programa betetzeko azalera estua du, eraiki gabeko azalera guztia ikasleak jolasteko patioetara bideratzen baita. Bestalde, berdegune eta espazio libreetarako 16 m^2 -ko azalera erabilera horrekin bat herritarrei zerbitzua eskaintzeko ez da nahikoa. Bi arrazoi horietan oinarrituta, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak, egun berraztertze fasean dagoenak, ikastetxeari lotutako azalera definitzea proposatzen da, xede hori ahalik eta ongien betetzeko. Nolanahi ere, ziurrenik, azalera hori beste handiago bati lotuko zaio eta hiri aisialdirako nahiz erosotasunerako funtzioak askoz baldintza hobeagoetan eskainiko ditu. Dena den, ikastetxeak Udalari lizentzia ematen dionean HEDaren artikuluei jarraiki dagokion zenbatekoa ordaindu beharko dio.

Hautabideei dagokienez, jada komentatu den bezala, aldaketaren abiapuntua lurzatiaren eraikigarritasuna gehitzea da. Eraikin nagusian aterpeen azalera itxi nahi da. Konponbide horrek ez du bestelako hautabiderik.

0 hautabideari edo “ez esku hartzeari” buruz, ezingo lirateke Bentades ikastetxearen egungo eskea eta bere hezkuntza programa estali.



4. PLANAK IZAN DEZAKEEN GARAPENA

Ikastetxea zabaltzeko jarduera **Hornidura Jarduerak** izenekoen barruan kokatuta dago. Urbanizazioaren ondorioz hiri lurzoru finkatuan kokatzen da, baita ez-finkatuan ere, hirigintza eraikigarritasuna gehitzen delako.

Zabaltzeko ahal izateko, ikastetxeak bakarrik eraikuntza lizentzia eskatu beharko du.



5. NAHASITAKO LURRALDE EREMUAN PLANA EDO PROGRAMA GARATU BAINO LEHEN INGURUMEN EGOERA KARAKTERIZATZEA

Aldaketaren eremua Mungiako hirigunean kokatzen da. Hegoaldean muga egiten du Bentades kalearekin, iparraldean Aureliano Galarza kalearekin eta gainerakoa eraikuntzek inguratzen dute, hurrengo irudian ikus daitekeen moduan.



5.1. irudia. Aldaketaren eremua

Beraz, oso-osorik artifizial bihurtutako hiri ingurunean gaude eta, ondorioz, natur ingurunearen elementurik ez du.

Aldaketaren eremua ingurumenaren ikuspegitik karakterizatzeko, Geoeuskadik eskainitako datuetara jo da eta ingurumen interesa duelako ezin daiteke ingurune fisikoaren elementurik aurkitu. Araudiak xedatutakoarekin bat, kartografia sintetikoa egin da, ingurumen arriskuei buruzko planoarekin (4. plano).

Eremu guztian aldeko baldintza geoteknikoak daude.



Ibilguek ez dute eremua zeharkatzen eta ez da ur punturik aurkitu.

Urpetze arriskurik ez dago eta akuiferoak kutsatzearekiko sentiberatasuna oso txikia da.

Kutsatua egon daitekeen lurzoruen inbentarioko lurzatirik ez da ikusi.

Era berean, aldaketaren eremuan ez da ondare historikoaren elementurik kartografian sartu.


Arrisku sismikoari dagokionez, eremu guztia IV-V intentsitateko zonan dago. Eta salgaien garraioarengatik arriskuen inguruan, eremua bide azpiegiturekiko 200-600 m tartean kokatzen da.




RUSLE higadura aztertuz gero, ez dago higadura zonarik.

Azkenik, ingurunean ez da toki interesgarrikerik ageri hurrengoak kontuan hartuta: natur espazioak, LAGn aipatutako beste espazio batzuk, Natura 2000 sarea, hezeguneak eta igarobide ekologikoak.

Zaintza estazio hurbilenari (Algorta) erreparatuz, arean airearen kalitatea ona da.

Egoera akustikoa landu nahi izanez gero, 2013. urtean Mungiako Udaleraako AAC Acústica + Lumínica erakundeak egindako zaratari buruzko mapatik atera diren emaitzak azaltzen dira.





Zarata ebaluatu eta kudeatzeko legegintzako esparrua, nagusiki, honakoek xedatzen dute: 2002/49/CE Europar Zuzentarauak eta Estatuan 37/2003 Legeak, zaratari buruzkoak, bi errege dekreturen bidez garatutakoak:

- 1513/2005 ED, giroko zarata ebaluatu eta kudeatzeari buruzkoa; izan ere, biek batera, 2002/49/CE Europar Zuzentarauaren iraulketa osatzen dute.
- 1367/2007 Errege Dekretua, zaratari buruzko legearen garapena osatzen duena, zonifikazio akustikoari, kalitatezko helburuei eta igorpen akustikoei dagokienez.



Euskal Autonomia Erkidegoan kutsadura akustikoari buruzko 213/2012 Dekretuak eremu akustiko desberdinetarako kalitate akustikoaren helburuak azaltzen ditu eta I. eranskinean xedatzen dira. Hona horiek hurrengo taulan:

Eremu akustiko mota		Zarataren adierazleak		
		Ld	Le	Ln
E	Osasun-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzoruak nagusi diren eta hots kutsaduraren aurkako babes berezia behar lurrealde-esparru edo - sektoreetarako zehaztutakoekin.	60	60	50
A	Bizitegi-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurrealde-esparru edo - sektoreak.	65	65	55
D	c) paragrafoan jasotakoa ez bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzoruak nagusi diren lurrealde-esparru edo sektoreak.	70	70	65
C	Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzoruak nagusi diren lurrealde-esparru edo - sektoreak.	73	73	63
B	Industria-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurrealde-esparru edo -sektoreak.	75	75	65
F	Garraio-azpiegituren sistema orokorrek edo horiek behar dituzten ekipamendu publikoek eragindako lurrealde-esparru edo -sektoreak.	(1)	(1)	(1)

Udalerriaren zonifikazio akustikoak kalitate akustikoari buruzko helburuak (KAH) ezartzen ditu eta bere lurraldean aplikagarriak izango dira. Lurzoruaren erabilera nagusiei, egungoei eta etorkizunekoiei, erreparatuz, area akustikoak mugatu behar dira, 213/2012 Dekretuak III. eranskinean emandako gomendioen babesean.

KAHak zehazteko, batetik, area akustikoak kontuan hartzen dira eta, bestetik, area jada existitzen al den edo garapen berrikoa al den definitzen da.

Etorkizuneko garapena: obra edo eraikinen bat egitea aurrez ikusia duen edozein hirigintza jardura, 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoak, 207. artikuluko b) atalean aurrez ikusitako lizentzia behar badu.

213/2012 Dekretuak 31. artikuluan xedatutakoaren arabera, "Area akustikoetan etorkizunean hirigintza garapena aurrez ikusten bada, hirigintza erabilerak berriz kalifikatzea barne, kanpoko espazioan kalitatea 5 dBA mugatzaileagoa izango da jada existitzen diren area urbanizatueta baino".

213/2012 Dekretuak III. eranskinean adierazten duen moduan, zonifikazio akustikoak ez du zehatza izan behar, beraz, azterketaren eremuari dagokion erabilera orokorra oinarritzat hartuta, eremua **bizitegi lurzorua** da eta, beraz, honako kalitate akustikoaren helburuak izango ditu:

AREA MOTA	AREA AKUSTIKOA	KALITATE HELBURUAK	
		L _d /e (dB(A))	L _n (dB(A))
A	Bizitegi erabilerako lurzoruak nagusi diren lurrealde sektoreak	60	50



Zarata Mapaz ondoriozta daitekeenaren arabera, KAHak betetzen dira, bai egunez, baita gauez ere.

Era berean, erabileraren arabera, eraikinen fatxada bakoitzari aplikatzen zaion isolamendu maila honakoa da (DB-HR 2016 Eraikuntzari buruzko Kode Teknikoan Zarataz Babesteko Oinarrizko Dokumentuari jarraiki):

2.1. Taula Airek
o zaratarekiko isolamendu akustikoaren balioak ($D_{2m,nT,Atr}$) dBA-n barruti babestuaren eta kanpoaldearen artean, eguneko zarataren adierazlearen (L_d) arabera

Ld dBA	Eraikinen erabilera			
	Egoitza eta ospitalea		Kultura, osasuna ⁽¹⁾ , irakaskuntza eta administrazioa	
	Logelak	Egongelak	Logelak	Ikasgelak
$L_d \leq 60$	30	30	30	30
$60 < L_d \leq 65$	32	30	32	30
$65 < L_d \leq 70$	37	32	37	32
$70 < L_d \leq 75$	42	37	42	37
$L_d > 75$	47	42	47	42

⁽¹⁾ Ospitaleetara bideratzen ez diren eraikinetan, hau da, anbulatorio moduko osasun laguntzako eraikinetan, besteak beste, medikuen bulegoak, kontsultak, diagnostikorako eta tratamendurako areak, etab.

ACC Acústica + Lumínica erakundeak egindako gatazkei buruzko maparen arabera, fatxadek ez dute isolamendua hobetu behar, Eraikuntzaren Kode Teknikoak aurrez ikusten duen gutxienekoarekiko (213/2012 Dekretuaren 43. artikulua).



6. AURREZ IKUS DAITEZKEEN INGURUMEN ONDORIOAK

Zona karakterizatzean aipatutakoari eutsiz, natur alderdien gainean ez da eraginik espero, aldaketa Mungiako hiriguneko ingurune antropikoan egingo baita.

Ingurumen eraginak obren fasean gertatuko dira, nagusiki, materialengatik. Hauts gehiago altxatuko da eta kutsatzaile gehiago sortuko dira, kamioien trafikoaren ondorioz. Dena den obraren garrantzia kontuan hartuta, eragina erabat bateragarria da.

Halaber, obren fasean soinuaren presioa gehituko da puntualki eta aldi baterako; horrez gain, eragina ingurunean oso mugatua da. Lanerako orduak zorrozki betetzeak jardueratik hurbil dauden etxebizitzetako biztanleei gutxieneko eragozpenak suertatzea bermatuko du.

Obretan sortzen diren soberakinak behar bezala kudeatuko dira eta bildu arte gaika pilatuko dira. Jarduera-eremutik kanpoko eraginak saihestuko dira.



7. ELKARTZEN DIREN SEKTORE ETA LURRALDE PLANEN GAINEAN AURREZ IKUSTEN DIREN ONDORIOAK

Udalaz gaindiko plangintzek edo lurralde antolamenduari buruzko tresnek ez dute esku-hartze eremua aske antolatzea mugatu edo baldintzatzen.



8. INGURUMEN EBALUAZIO ESTRATEGIKO SINPLIFIKATUAREN PROZEDURA APLIKATZEKO ARRAZOIAK

21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, jasotzen du ingurumen ebaluazio estrategikoaren eremuan araudia eta plana ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatua izateko ustezkoen barruan dago, Legeak 6. artikuluko 2. atalean xedatutakoaren arabera. Hala dio:

1. Ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar zaie administrazio publiko batek abian jarritako edo onetsitako plan eta programak, bai eta haien aldaketak ere, haien prestaketa eta onespina beharrezkotzat jo badu legezko edo erregelamenduzko xedapen batek, Ministroen Kontseiluaren erabaki batek edo autonomia-erkidego bateko Gobernu Kontseiluaren erabaki batek, honako egoera hauetan:

a) Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen badute, eta honako arlo hauei buruzkoak badira: nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, akuikultura, arrantza, energia, meatzaritza, industria, garraioa, hondakinen kudeaketa, ur-baliabideen kudeaketa, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren okupazioa, itsas ingurunearen erabilera, telekomunikazioak, turismoa, hiri- eta landa-lurraldearen edo lurzoruaren erabileraren antolamendua; edo bestela.

b) Ebaluazioa behar badute, Natura 2000 Sareko guneetan eragina dutelako, abenduaren 13ko 42/2007 Legean, natura-ondareari eta biodibertsitateari buruzkoan, xedatutakoaren arabera.

c) 2. paragrafoan jasota daudenak, ingurumen-organoak ingurumen-txosten estrategikoan hala erabakiz gero, kasuz kasu, V. eranskineko irizpideei jarraituz.

d) 2. paragrafoan jasota dauden plan eta programak, ingurumen-organoak hala erabakiz gero, sustatzaileak eskatuta.

2. Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua honako kasu hauetan egin behar da:

a) Aurreko paragrafoan aipatutako plan eta programetan aldaketa txikiak egitean.

b) Aurreko paragrafoan aipatutako plan eta programetan, udal-mailan eremu txikien erabilera ezartzen dutenean.

c) Etorkizunean proiektuak baimentzeko esparrua ezartzen duten plan eta proiektuetan, aurreko paragrafoan ezarritako gainerako baldintzak betetzen ez dituztenean.



Planteatzen den aldaketari, hasieran, ebaluazio sinplifikatuak eragiten dio, planaren aldaketa txikia baita eta 6. artikuluko 1. atalean aipatzen diren gainerako baldintzak ez baititu betetzen.



9. AURREZ IKUSITAKO HAUTABIDEAK AUKERATZEKO ARRAZOIEN LABURPENA

Jada adierazi den moduan, aldaketaren abiapuntua lurzatiaren eraikigarritasuna gehitzea da. Eraikin nagusian aterpeen azalera itxi nahi da. Konponbide horrek ez du bestelako hautabiderik.

0 hautabideari edo “ez esku hartzeari” buruz, ezingo lirateke Bentades ikastetxearen egungo eskea eta bere hezkuntza programa estali.



10. PLANA EDO PROGRAMA APLIKATZEAN INGURUMENAREKIKO EDOZEIN ONDORIO NEGATIBO PREBENITU, MURRIZTU ETA, AHAL DEN NEURRIAN, ZUZENTZEKO AURREZ IKUSITAKO NEURRIAK, ALDAKETA KLIMATIKOA ERE KONTUAN HARTUTA

Orokorrean, hainbat neurri eta praktika on aplikatu beharko dira antolaketan, garatzen diren ingurunean izan daitezkeen eraginak mugatzeko eta ingurunearen gainean behin-behineko eragozpenak minimizatzeko. Ildo horri jarraiki, honako neurriak aplikagarritzat jo daitezke:

- o Materialen zama-lanak, hondeaketak eta, oro har, hautsa edo partikulak igor/mugiaraz ditzaketen eragiketa guztiak haizearen abiadura (bektore sakabanatzailea) 10 km/h-tik beherako denboraldietara mugatzea. Hala, jarduera horiek egunero planifikatzen direnean, obra zuzendaritzarentzat aurreikuspen meteorologikoa kontuan hartzeko beste faktore bat izango litzateke.
- o Ibilgailu eta makineria astunaren igorpenei dagokienez, mantentze-lan tekniko egokiaren bidez (motorrak ondo erretzen duela ziurtatzeko) eta, ahal den neurrian, material berria erabiliz (marka guztien politika da modelo berrietarako diseinuzko parametro bezala behe kontsumoko ingurumen irizpideak, etekin hobeak, etab. eranstea) murriz daitezke. Alderdi hori lizitatzaileak kontratista balioztatzeko irizpide osagarri modura sar dezake.
- o Obren fasean sortutako zaratari buruz, makineriaren prebentziozko mekanikak (arestian deskribatu den bezala) piezak egoera txarrean daudelako, beharrezkoa ez den zarata sortzea saihestu dezake. Bestetik, ezin daiteke bazter makineriaren ontzidia osatzen duen unitate bakoitzari zarata eta bibrazioei buruzko arauak zorrozki betetzea eskatu behar zaiela. Indarreko legeria arautzailea honakoa da: *212/2002 Errege Dekretua, otsailaren 22koa, aire zabalean erabiltzen diren makina zehatzen ondorioz ingurunean soinu igorpenak arautzen dituen*, eta *524/2006 Errege Dekretua, apirilaren 28koa, 212/2002 Errege Dekretua aldatzen duena*. Era berean, obra zuzendaritzak aurrez ikusitako jarduera ordutegiak betetzen direla bermatuko du.

Ahal den heinean proiektuaren eraikuntzan eta ustiapenean gorabeherak eta istripuak saihesteko honako xedapenak beteko dira:

- o *1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen esparruan eraikuntza obratan gutxienezko segurtasun eta osasun xedapenak zehatzen dituen*.



- o 1997ko ekainaren 17ko Agindua, 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, erakunde espezializatuak enpresekiko kanpoko prebentzio zerbitzu bezala egiaztatzeko baldintzei dagokienez prebentzio zerbitzuen arautegiari buruzkoa, garatzen duena; halaber, enpresen prebentzio sistemari buruzko auditoriaren jarduera garatu nahi duten pertsona edo erakunde espezializatuak baimentzeari buruzkoa da, baita lan arriskuen prebentzioaren arloan prestakuntza jarduerak garatu eta ziurtatzeko erakunde publikoak edo pribatuak baimentzearen ingurukoa ere.
- o 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, lanari atxikitako arriskuen hasierako ebaluaziotik eta, ondorioz, antzemandako arriskuen izaera kontuan hartuta neurri egokiak hartzetik abiatuta ikuspegi berrian prebentzio zerbitzuei buruzko araudia onartzen duena.
- o 780/1998 Errege Dekretua, apirilaren 30ekoa, 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, prebentzio zerbitzuei buruzko araudia onartzen duena, aldatzearen ingurukoa.
- o 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, lan arriskuen prebentzioa, langileen segurtasuna eta osasuna sustatzea helburu duena eta, horretarako, lanaren ondoriozko arriskuak prebenitzeko neurriak aplikatu eta jarduerak garatzen dituen; herri administrazioek eta enpresaburuek, langileek nahiz ordezkaritza erakundeek garatu behar dituzten jarduerak arautzen ditu.
- o 54/2003 Legea, abenduaren 12koa, lan arriskuen prebentzioari buruzko araudiaren esparrua berritzen duena. Ibilgailuen garraioa gehitzearen ondorioz istripuen arriskua minimizatzeko, nahasitako bideetan seinaleztapena indartzea gomendatzen da.

Modu berean, hondakinak kudeatzean printzipio hierarkikoei erreparatuz, kudeaketan honako lehentasunezko ordena nagusi izango da:

1. Prebentzioa
 2. Berrerabiltzeko prestatzea
 3. Birziklatzea
 4. Beste mota bateko balio-ematea, energia ateratzea barne.
 5. Deuseztatzea
- o Hondakinak bakarrik deusezta daitezke, aldez aurretik behar bezala justifikatzen bada, balioztatzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren ikuspegitik bideragarria ez dela.



- o Lehentasuna emango zaio minimizatzeari eta atzetik joango dira berrerabiltzea edo birziklatzea. Azkeneko aukera da hondakinaren tipologiaren arabera baimendutako eta egokitutako instalazioan isurtzea edo kudeatzaile baimenduari entregatzea.
- o Obren fasean puntu garbia instalatuko da, sortutako hondakinak bildu, bereizi eta kudeatzen direla bermatzeko.
- o Bai obra fasean, bai ustiapen fasean sortutako hondakin guztiak motaren arabera behar bezala kudeatuko dira.

Hondakinen kudeaketa

- o **Hondakin inerteak (HI):** halako hondakin mota 49/2009 Dekretuak, otsailaren 24koak, hondakinak zabortegian isuriz eta betelanak eginez deusezta daitezen arautzen duenak, xedatutakoarekin bat kudeatuko da.
- o **Olio erabiliak:** 259/1998 Errege Dekretuak, irailaren 29koak, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan olio erabilien kudeaketa arautzen duenak, xedatutakoa aplikatuko da.
- o **Hondakinak zabortegian botatzea:** Otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren, hondakinak zabortegian isuriz eta betelanak eginez deusezta daitezen arautzen duenaren, zehaztapenak kontuan hartuko dira. Dekretuaren xedea hondakinak EAEren eremuko zabortegian botata deuseztatzeko jardueri lege araubide aplikagarria ezartzea da. Hala, zabortegi motak, horietan hondakinak onartzeko irizpideak eta prozedurak, behar bezala instalatu, kudeatu eta ustiatzeko erregulazioa eta ixteko eta itxi ostean mantentzeko prozedurak arautzen ditu.

Jardueren obra eta ustiapen faseetan zarata mailak puntualki gehituko dira, ibilgailuen trafikoarengatik eta makinak erabiltzeagatik.

Nahiz eta zaratak aldi batean sortu, minimizatzen saiatzeko arauak aplikatuko dira:

- o Obrako zonetan trafikoa ahalik eta arinena izatea.
- o EBk homologatutako makineria eta eraikuntza ekipoak erabiltzea, soinu-igorpenari buruzko balio mugak, dagokion araudiak baimendutakoak, bermatzeko. Horrez gain, makineriaren funtzionamendua denboran ahalik eta gehien minimizatzea. Modu berean, obran erabili behar diren motorrezko ibilgailuek egungo zuzentarauak baimentzen dituen soinu mailaren mugak bete behar dituzte.
- o Lanek zarata handia egitea eskatzen badute, betiere jarduerak gaez gara daitezen saihestea.



- o Eraikuntza berriek Eraikuntzaren Kode Teknikoan “DB-HR zarataren aurrean babesa” oinarritzko dokumentuan jasotako baldintzak, *urriaren 19ko 1371/2007 Errege Dekretuaren* bidez onartutakoak, beteko dituzte, eskatutako kalitate akustikoaren helburuak betetzeko, bai kanpoko zaratari dagokionez, bai eraikinen barneko espazioetan. Nolanahi ere, horiek *213/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, Euskal Autonomia Erkidegoan kutsadura akustikoari buruzkoak*, xedatzen ditu. Dena delakoa, zaratak erabiltzaileei sor diezazkiekeen eragozpen eta gaixotasun arriskuak mugatuko dira.

Azkenik, eraikuntzaren eremuan garapen iraunkorrari buruz geroz eta estrategia gehiago proposatu behar direnez, ezinbestekoa da eraikuntza iraunkorragoa sustatzea eta egungo araudiarekiko eskakizun mailak areagotzea.

- o Eraikin berrietan energia berriztagarrien instalazioak izateko aukera aztertuko da eta, bide batez, garapen berrietan energiaren ikuspegitik nor bere buru aski izaten saiatuko da. Eraikinetako estalkiek garapen iraunkorra sustatzen duten jarduerak ezartzeko aukera eskain dezakete, besteak beste, energia berriztagarrien instalazioak, estalki berdeak, ura arrazionaltasun handiagoz erabiltzen laguntzeko instalazioak, etab.
- o “*EAE En Etxebizitzetarako Eraikuntza Iraunkorrari buruzko Gidak*”, Eusko Jaurlaritzak garatutakoak, praktika onen zerrenda zabala du, bere bizi ziklo guztian zehar eraikinak egitean aplikatzeko. Hirigintza plangintzarekin zerikusia duten alderdiak eransten ditu, hala nola, eraispenean eta eraikinak ustiatu nahiz mantentzean lortutako hondakinak kudeatzea.
- o Kanpoko argien instalazioak diseinatu, gauzatu eta mantentzeko baldintza teknikoek honakoaren arauari erreparatuko diote: *1890/2008 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, kanpoko argi instalazioetan energia eraginkortasunari buruzko araudia eta EA-01etik EA-07ra instrukzio tekniko osagarriak onartzen dituena*. Helburua argi kutsadura mugatzea da. Herri argi sistemak, energia eraginkortasuna sustatu eta argi kanpotar eta gogaikarriaren ondorioak minimizatzen dituztenak, erabiliko dira. Zerurako argi igorpenak mugatuko dira.

Argi kanpotarra arintzeko, argi sistematik desiragarriak ez diren eraginak muga daitezen neurriak hartuko dira, *34/2007 Legeak, azaroaren 15ekoak, airearen kalitate eta atmosfera babesteari buruzkoak*, xedatutakoaren arabera.



11. PLANA INGURUMENAREN IKUSPEGITIK JARRAITZEKO AURREZ IKUSITAKO NEURRIAK DESKRIBATZEA

Halako programaren helburua ingurumen inpaktuak behar bezala jarraitu, zaindu eta kontrolatzea da, baita horiek zuzentzea ere. Zehazki, honakoak aipa daitezke:

- Planak aurrez ikusitako jarduerak behar bezala gauzatzen direla ziurtatzea, bai obren fasean, baita ustiapenean ere, neurri zuzentzaileak eta ingurumen inplikazioak betetzeko.
- Sortutako inpaktuak aurrez ikusitakoak direla egiaztatzea, bai magnitudean, bai nahasitako ingurunearen faktoreetan.
- Proposatutako neurri zuzentzaileen eraginkortasuna kontrolatzea.
- Jardueren abiada ikusirik, aurrez ikusitako eta onartutako inpaktuekiko berriak agertzen badira, beharrezkotzat jotzen diren neurriak egituratzea.

Programak kontrol tresna izan behar du eta, horren harira, aurrez ikusitako inpaktu negatiboen eta aurrez ikusi gabeko gorabeheren magnitudea egiaztatuko du. Hori plangintzaren garapen fasean eta ezartzen denean egingo da.

Era berean, ustezko ondorioetan desbideratzeak eta hartutako neurri zuzentzaileen eraginkortasuna antzemango dira. Beharrezkoa bada, neurri berriak proposatu eta egituratuko dira edo jada aurrez ikusitakoak aldatuko dira. Hala, aipatu helburuak lortuko dira eta, ondorioz, ingurunearen gainean aldaketak minimizatu ere bai.

Planaren helburuak betetzearen aldean honako kontrolak gauzatuko dira:

- ✓ Jardueraren azalerak proiektatutakoa ez duela gainditzen egiaztatzea.
- ✓ Hurrengo eraikuntza alderdiak kontrolatzea:
 - ❖ Eraikitako azalera
 - ❖ Hondakinak sortu eta kudeatzea
 - ❖ Sarbideak
 - ❖ Saneamendu eta hornidura sarea
 - ❖ Zorrak
 - ❖ Obraren elementu osagarriak eta metaketa guneak kokatzea



- ✓ Lurzoruaren erabilerak kontrolatzea: planean proposatutakoak zorrozki beteko dituzte, hau da, plangintzaren antolamendu berriaren proposamenekin bat etorriko dira.
- ✓ Atmosferara hautsa eta partikulak mugi ditzaketen eragiketak kontrolatzea (garraio eragiketak, materialen zama-lanak, lurren mugimendua).
- ✓ Ibilgailuen eta obra makineriaren mantentze-lanei eta azterketa teknikoei buruzko parteak kontrolatzea.
- ✓ Lanak egiteko baldintza atmosferikoak kontrolatzea.
- ✓ Partikulen igorpenak arintzeko neurrien aplikazioa (ureztapena) kontrolatzea.
- ✓ Sortutako hondakinen kopurua eta kudeaketa egokia kontrolatuko da.
- ✓ Bai obren fasean, baita ustiapenaren fasean ere, obrak egitean ordena eta garbiketari buruzko helburu orokorrak betetzea zainduko da. Gauza bera egingo da horiek ezkutatzeko, berriz landareak jarri eta zuhaitzak landatzeko eta berdegunean zaintzeko.
- ✓ Obra amaitutakoan hondar material guztiak erretiratzeko zainduko da: bilgarriak, obra hondakinak, materialen hondakinak, etab.
- ✓ Gehieneko soinu mailak indarreko legeria gainditzen ez duela kontrolatuko da. Kanpoaldean eta eraikinen barneko espazio bizigarrietan zaratarako kalitate akustikoaren helburu aplikagarriak balioetsiko dira, *213/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, Euskal Autonomia Erkidegoan kutsadura akustikoari buruzkoak*, xedatutakoaren arabera.
- ✓ Eremuaren zonifikazioan zehaztutako kalitate akustikoaren helburuak betetzen direla egiaztatuko da.
- ✓ Obren fasean, bideetan egiten diren aldaketak behar bezala seinaleztatzen direla kontrolatuko da eta eragozpenak behar baino gehiago ez luzatzeko epeak betetzen direla zaindu ere bai.
- ✓ Seinaleak behar bezala jarriak egoten saiatuko da, bereziki, kamioien irteera adierazten dutenak.
- ✓ Sarbideak eta galtzada biztanleak eta ibilgailuak igarotzeko baldintza egokietan mantentzen saiatuko da.
- ✓ Obrak amaitutakoan eta beharrezkoa izanez gero, jardura sustatzen den ingurunean edozein aldaketa lehengoratzeko edo konpontzeko dela kontrolatuko da.



12. DOKUMENTAZIO GRAFIKOA

Dokumentu honekin batera hurrengo dokumentazio grafikoa doa:

- ▶ 1. planoa Kokapena
- ▶ 2. planoa Ortoargazkia 2015
- ▶ 3. planoa Aldaketaren proposamenak
- ▶ 4. planoa Ingurumen arrisku nagusiak

Bilbon, 2017ko martxoaren 31n
Dokumentuaren arduraduna

Mar Basagoiti Royo
Biologoa, 83. elkargodun zenbakia